

Behatuz ezagutu

Herriko berdeguneak



Maketazio eta marrazkiak: BATUTA

Behatuz ezagutu



Nola duzu izena?

Zenbat urte dituzu?

Nongoa zara?



Naturan hezten

Sortzailea



Landarlan
ingurumen elkartea

Laguntzailea



EHKolektiboa
AGROEKOLOGIAREN BIDEAN

Babeslea



kutxa
FUNDAZIOA

HERRI / HIRIGUNEKO BERDEGUNEAK

Herrigunea gertutik ezagutzen hasi aurretik, ikuspegi orokor bat izateko, gertu daogen muino batera igo gaitzke:

Herrigunearen ingurua nolakoa da?

- Bailara zabala Bailara estu batean, mendiz inguratua
- Lautada zabala _____



Herriguneari begiratzen badiogu, nolako eraikinak ikusten dira?

- Eraikin baxuak Eraikin altuak
- _____

Eraikinak elkartuta edo sakabanatuta ikusten dira?

- Elkartuta Sakabanatuta

Herrigunean berdegunerik nabari al da?

- Bai Ez

Ibarbasoa edo erreka ertzeko basoaren arrastorik ikusten al da?

- Bai, uraren ibilgua erraz nabari da, erreka ondoko basoa dela eta.
 Ez da erreka ondoko basoa bereizten.

Herriguneko berdeguneak aztertzeko, ibilbidetxo bat eginez, ea ondorengo galderak erantzuten dituzun:

Zenbat berdegune daude zure herrian/hirian?

- Oso gutxi Gutxi
 Nahiko Asko

Nolako berdeguneak daude?

- Zuhaitzak edo zuhaiskak Landare hesiak edo sastrakadiak
 Lore guneak Zelaia

Ea % portzentaje bidez, zehazten duzun berdegune mota bakoitzaren gutxi gorabeherako zenbatekoa.

- Zuhaitzak edo zuhaiskak %
 Landare hesiak edo sastrakadiak %
 Lore guneak %
 Zelaia %
 %.....

Oraingo honetan, berdegune bat aukeratu dezakezu, ahalik eta landare aniztasun gehiena duena (zelaia, lore gunea, landare hesia/sastrakadia, zuhaitzak, ibarbasoa).

Aztertuko duzun eremuan dauden berdeguneak planotxo batean kokatzen asmatuko zenuke? Aurrerago, behatuko dituzun gune zehatzak planoan bertan adierazi ditzakezu.



Zenbat landare eremu ezberdin daude?

- Zelaia
- Lore guneak
- Landare hesiak edo sastrakadiak
- Zuhaitzak edo zuhaiskak
- Ibaiertzeko basoa edo ibarbasoa

Landare eremu ezberdin baokitza bere aldetik aztertzeko:



Zein altuera dute, bertan bizi diren landare belarkarek?

- <20 cm
- 20-50 cm artean
- >50 cm

Landare hauek gertuagotik behatu ezkerro, ebakita edo moztuta daudela konturatuko zarete. Zergatik uste duzu mozten dituztela landare belarkarahauek?

Espezie aniztasun aldetik, maila baxueneko egitura zelaiarena da. Belarra mozteari utziko bagenio, eremu berde hauek pixkanaka eraldatuz joango lirateke. Ordenatuko al zenituzke kronologikoki bilakaera horren ondorioz garatuko liratekeen landaredia motak?

- Zuhaixkak agertzea
- Basoa sortzea
- Sastrakadiaren gailentzea
- Landare belarkara garatzea

Landareen bizitzan, lorea sortu ondoren, polinizazioa gertatzen da, eta ondorioz, haziak sortzen dira. Hazi horrek baldintza egokiak bilatzen baditu, ernatu eta landare berri bat sortuko da. Haziak sortu aurretik belarra mozteak, hauen ugalketa eten eta biodibertsitatea pobretzea eragin dezake.

Ba al dakizu aukeratutako berdegune horretan belarra noiz mozten duten?

- Landareak lorea eman aurretik
- Landareak hazia eman aurretik
- Landareak hazia eman ondoren

Berdegune horren kasuan, belarra loreak garatu aurretik moztenbada, horrek ze eragin izango du polinizatzaileengan?

Eta moztutako belarrarekin zer egiten duten badakizu?

- Moztu eta eraman egiten da Moztu eta bertan uzten da

Uste duzu belarra moztu eta bertan uzteak zelaiarentzat onurarik baduela? Arrazoitu zure erantzuna.

Beste modu bateko ongarriketarik egin denik behatzen duzue?

Zein landare belarkara bereizten dituzu?

- Hirusta Marrubi landarea Plantaina
 Asuna Menta Berbena
 Mota ezberdinetako gramineoak _____

Loredun landarerik ba al dago? Zein koloretakoak? Usainik ba al dute?



Eta haziak dituen landararik ba dago? Zein?

Ureztaketa sistemarik bada, landareen ur beharrak asetzeko?

Zergatik uste duzu ureztatzen direla?

Beharrezkoa dela uste duzu?

Lore gunea

Ezagutzen al dituzu, bertan dauden loreak? Nola izena dute?

Usainik ba al dute? Eta zein koloretakoak dira?

Gure inguruko mendietan aurkitzen diren loreen antzik ba...

Zergatik uste duzue, kanpotik ekarritako loreak landatzen c...

Loreen artean, belarrik hazten al da?

Bai Ez



Hala ez bada, nola ekiditen dute?

Kontutan izan behar dugu, tratamendu kimikoak ere, erabiltzen direla, herbizida izenekoak. Produktu hauek toxikoak izanik, zein eragin izan ditzakeela uste duzu?

Belarra haztea ekiditeko elementurik ikusi duzu? Zein?

- Pinu azala
- Egur txikitua
- Plastikozko tela
- Besterik?

Plastikozko tela erabiltzeak zein kalte eragin ditzakeela uste duzu?




Landare hesi edo sastrakadia

Neurriak estimatzen saiatu zaitez:

- Altuera:
- Zabalera:

Hosto iraunkorra edo erorkorra du?

- Iraunkorra
- Erorkorra



Ikusten al diozu lorerik edo fruiturik?

- Lorea
- Fruitua

Landare hesiak, askotan hegazti txikientzat gordeleku izaten dira eta fruituak janez, elikagai iturri aberatsa ere bai. Ikusten al da hegaztirik landare geruzan?

- Bai. Zein? _____
- Ez

Eta hegaztien aztarnarik?

- Habia
- Luma
- Zirina.
- Besterik? _____



Aztergai duzun landare hesiak zein funtzio betetzen duela uste duzu?
Aukeratu beheko zerrendatik edota gehitu besteren bat:

- Eremuen bereizketa
- Estetikoa
- Biodibertsitatearen zaintza
- Besterik? _____

Ezagutzen al duzu landare espeziea?


Kanpoko espeziea da edo hemengo basoetan modu naturalean hazten da?

Kanpoko espeziea bada, bertako zein espezierekin ordezkaturko zenuke?

- Pagoa
- Erramua
- Elorria
- Gorostia
- Besterik? _____



Zuhaitz edo zuhaixkak



Zuhaitz solteak dira edo zuhaitzak elkarren ondoan multzokatuta daude?

Nola daude kokatuta?

Ilaran Sakabanatuta _____

Zuhaitzek, lasai hazi ahal izateko, eraikin, errepide edota beste oztopo batzuetatik nahikoa distantzia dute?

Bai Ez

Zein elementuk oztopatzen du?

Zuhaitz horiek zein espezieetakoak diren badakizu?

Bertako basoetan aurkitzen diren espezierik ba al dago?

Lizarra Haritza
 Pagoa Elorria
 Gaztainondoa Sagarrondoa
 Udareondoa Besterik? _____



Lorezainek, arrazoi ezberdinak tarteko, kimaketa lanak egiten dituzte zuhaitzetan. Ikusi al duzu, lan hauen arrastorik?

Bai Ez

Zauri handiak ikusten al dira?

Bai Ez


Zergatik uste duzu, kimaketak egiten dituztela?

Kimaketak egiteko garairik aproposenak:

Hosto erorkorren espezetan: Otsaila-martxoan

Hosto iraunkorreko espezetan: Ekainean

Ba al dakizu noiz kimatzen dituzten zuen herriko zuhaitzak?



Ibarbasoa edo ibaiertzeko basoa

Ibarbasoak gure erreka eta ibaien parte dira, paisaia natural batean baso hauek ur ibilguaren bi aldeetan zabal hedatuko lirateke. Aztergai duzun ibarbasoa zabala da? Edota beste erabilera batzuez ordezkaturik izan da?

- Baratzeak Zelaiak
 Etxebizitzak Besterik?

Uholdeak gertatzen direnean, ohiko ur ibilguaren inguruko lurrak, uholde lautadak deritzanak, ureztatu egiten dira. Urak dakartzan hare eta mineralekin, lur oso emankorrak izaten dira hauek. Lur lauak eta aberatsak, nekazaritzarako primerakoak. Aztergai duzun gunean, zer da ugariagoa, ibarbasoa, nekazaritza lurrak edota urbanizatutako gunek? Bakoitzak zein portzentaje duen estimatu:

- Ibarbasoa % _____
 Nekazaritza eta abeltzaintza % _____
 Eremu urbanoa % _____

Hori horrela izanda, aztergai duzun eremuan honako zein baieztapen bete daitezke?

- Nekazaritzako lurrak ibarbaso bilakatu daitezke.
 Ibarbasoa dagoen eremua nekazaritzara bideratu daiteke.
 Nekazaritzako lurrak edota ibarbasoa dauden lekuak urbanizatu daiteke.
 Urbanizatutako gunek ez dute nekazaritzarako edota ibarbasoak lehengoratzeko balio, lurzorua zigilatuta dagoelako.
 Besterik? _____

Ur emariari erreparatuz, zein ur ibilguri dagokio zuen herritik pasatzen den erreka edo ibaia?

- Goi ibilgua Erdi ibilgua Behe ibilgua




Ur ibilguaren zenbateko zabalera du?

Ur ibilguan zaborrik ba al dago?

- Asko Nahiko
 Pixka bat Batere ez

Zenbait herritan, ibaira zaborrik ez erortzeko, sareak jarri dira zubi eta ibaiertzetan. Zuen herrian ba al dago horrelakorik?

- Bai Ez



Ur ibilguaren ertzetan landaretzarik ba al dago?

Bai Ez

Zenbateko zabalera du? _____

Eta ibaiertzeko hormarik ba al dago?

Bai Ez

Zein materialekin egina? _____

Ezagutzen al dituzu zein espezieetakoak diren bertako zuhaitzak?

- | | |
|-------------------------------------|-----------------------------------|
| <input type="radio"/> Haltza | <input type="radio"/> Lizarra |
| <input type="radio"/> Hurritza | <input type="radio"/> Platanondoa |
| <input type="radio"/> Intxaurrondoa | <input type="radio"/> Lezkak |
| <input type="radio"/> Sahatsa | <input type="radio"/> Pikondoa |
| <input type="radio"/> Makala | <input type="radio"/> Besterik? |

Ur eremu honetan, ikusten al da animaliarik?

Ibarbasoak zein funtzio betetzen dituela uste duzu?

- | | |
|--|---|
| <input type="radio"/> Uretako ekosistema babestu | <input type="radio"/> Ibaiertzeko lurra babestu |
| <input type="radio"/> Itzala sortu | <input type="radio"/> Mikrohabitatak sortu |
| <input type="radio"/> Materia organikoa gehitu | <input type="radio"/> Ura eta airea garbitu |
| <input type="radio"/> Uraren kalitatean hobetu | <input type="radio"/> Besterik? _____ |

Zergatik uste duzu, ibarbasoa ia desagertzeraino iritsi dela?

Uholde lautadak, errespetatzen al dira zure herrian? Edota urbanizatuta daude?

Zein uste duzu dela horren arrazoa?

Ondorioak

Herri/hiriko berdeguneak, garrantzitsuak direla uste duzu?

- Asko Nahiko
 Pixka bat Batere ez

Zergatik?

Nola hobetu daiteke berdeguneen egoera zure herrigunean?

Berdegune gehiago sortzea ideia polita izan daiteke. Agian udaletxeari proposatu diezaiokezu, herriko plano batean irudikatuz:





Berdeguneak, jolasleku ederrak dira, belarretan bueltaka kroketarena eginez, zilipurdika, zuhaitzetara igo eta jaitsi, belarrekin trentzak egin, marrubi txiki goxoak jan,... Zergatik ez, berriro goxatu eta emozioz bizi?

Gure berdeguneak zaindu,
ugaritu, eta merezi duten
balioa eman diezaiegun!!!